

BEHAR SOZIALAK Nork erabakitzen ditu?

Akotatzea zaila den terreno batetan mugitzen gara hemen, giza portaera defizitarioen izakera konplexuengatik, haren definizioa praktikoki eta kontzeptualki sailkatua izatearen aurka egonez.

Baina horregatik ez dugu bertan behera utzi behar zenbait parametrotara hurbiltze ahalegin bat, ezagutu nahi ditugun egoeren interpretazio baliagarri bat eskaini zezaketenetara, alegia.

Behar horietaz hitz egiteko baliagarri gerta daitezkeen interlokutore guztiak entzuteko komenigarritasuna kontutan hartzetik hasi beharko litzateke. Alde horretatik aipatu beharra dago beharrean dauden berberak, beren familiak, aurkezten dituzten elkarteak, teknikoak eta gai horretan aditu direnak.

Bistakoa da, era desberdinetako kritikak egin daitezkeela beraien konpetentzien gain dauden arazo horiek interpretatzeko orduan, baina zalantza guztietatik kanpo dago esparru batean egin dezaketen iritzi ekartze baliotsua —definizioz— mugatze partzial batetik ihes egiten duen esparru horretan, nahi den bezain espezializatua izanik ere.

Pena mereziko luke banan banan kritikatzeak behar sozialen "protagonisten" testigantzak, baina geroagoko parte hartze batzutarako utziko dugu. Paraleloki hartu beharko da baita ere zerbitzuen eskaintzaren ikerketa (erabil daitezkeen ekipamenduak, atzerrian egindako eredu ekintzak, giza errekursoaketa). mugitzen garen aurrekontuetako eta lege inguruari eskaintzen zaizkion aukeren barruan, baina horrek burutazio horien mugak gainditzen ditu.

Bizitzea tokatzen zaigun garai honetan, prezisioteknologikoengatik babestuak ez datozen definizioak onartzeko hain aurkakoa den honetan, egia izanez jarraitzen du, beharrak eta sufrimenduak bizitzen dituztenengana —eta beraiekin bizi direnengana— hurbiltzeko aukerak, gizarteak berak bere eskariei eman diezazkiekeen erantzunak hobeto zuzentzeko.

Jose Egia